



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

**zinegotziak**

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2013ko azaroaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

229/2013 Dekretua

259/2013 Dekretua

270/2013 Dekretua

287/2013 Dekretua

332/2013 Dekretua

336/2013 Dekretua

385/2013 Dekretua

390/2013 Dekretua

395/2013 Dekretua

230/2013 Dekretua

261/2013 Dekretua

277/2013 Dekretua

310/2013 Dekretua

335/2013 Dekretua

384/2013 Dekretua

388/2013 Dekretua

394/2013 Dekretua

408/2013 Dekretua



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

412/2013 Dekretua  
421/2013 Dekretua  
428/2013 Dekretua

413/2013 Dekretua  
425/2013 Dekretua  
429/2013 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**HIRUGARRENA.- LIZARTZAKO UDALERRIKO KANPOKO ARGIZTAPEN-ZERBITZUAREN KUDEAKETA ADJUDIKAZIOA**

**LEHENA.** 2013ko uztailaren 1eko datan, alkateak beharrezkotzat jo zuen Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa Kontratatzeko zerbitzuaren kontratazioa egitea.

**BIGARRENA.** Alkateak aipatutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, prozedura irekia dela egokiena iritzi zaio, alde ekonomikotik dakartzan onurak direla eta, esleipenerako zenbait irizpide oinarri hartuta.

**HIRUGARRENA.** 2013ko uztailaren 3ko datan, Kontu-hartzaitzak txostena egin zuen, azalduz kontratazioaren kostuak indarreko aurrekontuaren baliabide arruntetako zer ehuneko hartzen duen.

**LAUGARRENA.** 2013ko uztailaren 3ko datan, Idazkaritzak txostena egin zuen, legeria aplikagarriari, erabili beharreko prozedurari eta kontratua onartzeko eta esleitzeko organo eskudunari buruz.

**BOSGARRENA.** 2013ko uztailaren 17ko datan, alkatetza-ebazpen baten bidez, kontratazio hori egiteko espedientea abiatzea onartu zen, proposatutako kontratazioaren premia eta egokitasuna arrazoitu ondoren.

**SEIGARRENA.** 2013ko uztailaren 11ko datan, kontratuaren esleipena arautuko duten administrazio-baldintza berezien agiria idatzi zen, eta espedientean jaso, eta 2013ko uztailaren 11ko datan, baldintza teknikoen agiria.

**ZAZPIGARRENA.** 2013ko uztailaren 12ko datan, kontu-hartzaileak kontratazioari dagokion kreditu-atxikipena egin zuen, eta 2013ko uztailaren 12ko datan, espedientearen fiskalizazio-txostena eman zuen.

**ZORTZIGARRENA.** 2013ko uztailaren 29ko datan, alkatetza-ebazpen baten bidez, Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa Kontratatzeko zerbitzua esleipenerako zenbait irizpide oinarri hartuta eta prozedura irekiaren bidez



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

esleitzeko –alde ekonomikotik dakartzan onurak direla eta–, kontratazio-espeditentea onartu zen, bai eta administrazio-baldintzen agiriak eta baldintza teknikoen agiria ere, eta esleipenari dagokion gastua baimendu zen.

**BEDERATZIGARRENA.** 2013ko irailaren 12ko datan, lizitazio-iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio-organoaren kontratugile-profilean, interesdunek beren proposamenak aurkez zitzaten, hogeit eguneko epea emanez.

**HAMARGARRENA.** Espedientean jasota dauden proposamenak aurkeztu ziren lizitazioan.

**HAMAIKAGARRENA.** 2013ko azaroaren 4ko datan, kontratazio-mahaia eratu zen, eta balorazio teknikoaren txostena jaso ondoren, esleipena ELEC NOR S.A.ri ematea proposatu zuen.

**HAMABIGARRENA.** 2013ko azaroaren 6ko datan, alde ekonomikotik onuragarriena den eskaintza egin zuen lizitatuzaileari errekerimendua egin zitzaion, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 146.1 eta 151.2 artikuluetan aipatzen diren egiaztatze-agiriak aurkezteko, bai eta behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria eta kontratua betetzeko hitzartu dituen bitartekoak badituela ziurtatzen duen agiria ere.

Aztertuta txostenarekin batera doazen dokumentuak, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 151.4 artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat,

#### **ERABAKITZEN DA**

**LEHENA.** ELEC NOR S.A.ri enpresari Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa Kontratatzeko zerbitzuen kontratua esleitzea, alde ekonomikotik eskaintza onuragarriena izateagatik, prozedura irekiaren bidez eta esleipenerako zenbait irizpide oinarri hartuta, 2013ko uztailaren 29ko datan udalbatzak baten bidez onartu dena, eta 2013ko irailaren 12ko datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 174 zenbakian eta kontratugile-profilean argitaratu dena.

**BIGARRENA.** Gastua xedatzea, indarreko aurrekontuko 1.0000.221.433.01.01.2013 aurrekontu-sailaren kontura.



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

**HIRUGARRENA.** Esleipendun izan ez diren lizitatzailerei esleipenaren berri ematea, eta haiek jarritako behin-behineko bermearen itzulera baimentzea.

**LAUGARRENA.** Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa Kontratatzeko kontratuaren esleipendunari ebazpen honen berri ematea, eta kontratua izenpetzeko deitzea; izenpetzea Lizartzako Udalean egingo da, 2013ko azaroaren 29ko datan, 13:00etan.

**BOSGARRENA.** Lizartzako Udalerriko Kanpoko Argiztapen-Zerbitzuaren Kudeaketa Kontratatzeko zerbitzuen kontratuaren formalizazioa argitaratzea kontratugile-profilean eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ebazpen hau emandako datatik aurrera berrogeita zortzi eguneko epean.

**SEIGARRENA.** Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 333.3 artikuluan xedatutakoa betez, kontratuaren oinarritzko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

**ZAZPIGARRENA.** Kontu Auzitegiari edo Euskal Autonomia Erkidegoko fiskalizazioko kanpo-organoari kontratu formalizatua jasotzen duen agiriaren kopia ziurtatua eta dagokion espedientearen azalpen bat bidaltzea, betiere kontratuaren zenbatekoa 150.000 eurotik gorakoa bada. Kontratua formalizatu ondoren hiru hileko epean egin behar da adierazitako izapidea.

### **LAUGARRENA.- 2013 URTEKO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA** **3/2013**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

**PROPOSATZEN DA:**



# LIZARTZAKO

## UDALA

### GIPUZKOA

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
131.449.01.01	Peoia	3.500,00	6.000,00	9.500,00
160.449.01.01	G.S. Peoia	1.300,00	1.600,00	2.900,00
160.451.01.01	G.S. Begiraleak	550,00	73,35	623,35
162.121.01.05	Langileen Bizi Asegurua	2.097,54	500,00	2.597,54
210.441.01.01	Ur tuberi, depositu e.a.	1.000,00	2.000,00	3.000,00
421.442.01.01	Tolosaldeko Mankomunitatea	46.487,52	2.789,25	49.276,77
430.313.02.01	G.O. Larrialdietarako Laguntza	4.508,00	1.226,88	5.734,88
<b>GUZTIRA</b>		<b>59.443,06</b>	<b>14.189,48</b>	<b>73.632,54</b>

#### **KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
399.000.00.01	Bestelako diru sarrerak	837,06	9.152,18	9.989,24
420.121.01.01	F.A. Langileen Kontratazioa	9.383,77	3.750,00	13.133,77
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	69.951,44	1.287,30	71.238,74
<b>GUZTIRA</b>		<b>80.172,27</b>	<b>14.189,48</b>	<b>94.361,75</b>

- 2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

#### **BOSTGARRENA.- ZERGA ETA TASEN ALDAKETAREN BERRI EMATEA**

Alkateak, hitza harturik, 2013ko azaroaren 4an, burututako presazko bilkuran hartutako erabakien berri ematen du, eta literalki honela diote:

#### **TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tarifak honela geldituko lirateke:

IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	2013 URTEA	IPC 2012 – 2,9%	2014 URTEA
TURISMOAK	9 ZF. Baina gutxiago	34,00	1,00	35,00
	9tik11,99 ZF. Bitarte	64,55	1,87	66,42
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	110,81	3,21	114,02
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	153,61	4,45	158,06
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	198,26	5,75	204,01
	20 ZF. Gorakoak	241,28	7,00	248,28
AUTOBUSAK	21 eserlektik beherakoak	152,12	4,41	156,53
	21etik 50 bitartekoak	216,55	6,28	222,83
	50etik gorakoak	270,76	7,85	278,61
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik behera	77,20	2,24	79,44
	1000tik 2999 bitartekoak	152,12	4,41	156,53
	2999tik 9999 bitartekoak	218,67	6,34	225,01
	9999tik gorakoak	270,76	7,85	278,61
TRAKTOREAK	16 ZF beherakoak	32,27	0,94	33,21
	16tik 25 bitartekoak	50,71	1,47	52,18
	25tik gorakoak	152,12	4,41	156,53
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA	750tik 1000 bitartekoak	32,27	0,94	33,21
	1000tik 2999 bitartekoak	50,71	1,47	52,18
	2999tik gorakoak	152,12	4,41	156,53
ZIKLOMOTOREAK		8,07	0,23	8,30
MOTOZIKLETAK	125 c.c. Bitartekoak	8,07	0,23	8,30
	125tik 250 bitartekoak	13,81	0,40	14,21
	250tik 500 bitartekoak	27,7	0,80	28,50
	500tik 1000 bitartekoak	55,33	1,60	56,93
	1000tik gorakoak	110,61	3,21	113,82

**UR HORNIDURA TASAREN TARIFAK ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Ur Hornidura Tasaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Ur Horniduraren Tasaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Ur Hornidura Tasa honela geldituko lirateke:



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA- 0,30 – 0,44 – 0,58**  
**PROPOSAMENA - 2014**

KONTZEPTUA		GUZTIRA
Ura – Etxeak	270 kontagx 36 m3 x 0,30 x 4	11.664,00
- Lokalak	11 kontagx 36 x 0,44 x 4	696,96
- Industriak	13 kontag. X 36 x 0,58 x 4	1.085,76
Infraestruktura Kanona	294 kontag. x 7,00 x 4	8.232,00
Kontagailuen Kanona	294 kontag. x 1,35 x 4	1.587,60
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>23.266,32</b>
<b>GASTUEN AURRIKUSPENA</b>		
Gipuzkoako Urak	Ura Kontsumoa- 53.000 m3 x 0,6425 €/m3	34.132,00
	Infraestruktura Kanona	13.300,00
	Kalitate Kontrola	720,00
	Bestelako Mantenimenduak	3.000,00
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>51.152,00</b>
<b>DIFERENTZIA</b>		<b>- 27.885,68</b>

**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAren TARIFAK ALDATZEKO**  
**PROPOSAMENA**

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren aldaketarako tramitatutako espedientea ikusirik, eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzako aldeko txostenak egonik, eta proposaturiko aldaketen Ordenantzak gaur egungo legeak betetzen dituzenez, Udal Batzarrari, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren onarpena proposatzen diote, Hazienda Batzorde Informatzailearen Irizpenak diotenarekin ados.

Horren arabera, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Tarifak honela geldituko lirateke:

Hiri Ondasunen Gaineko Zerga	0,1600
Landalur Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga	0,6500

**SEIGARRENA.- EUSKARAREN EGUNERAKO ADIERAZPENA**

**ARNASGUNEAK HEDATUZ ETORKIZUNA LANDU**



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Abenduaren 3a euskararen eguna. Aurtengoan ere, ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako tarterik izango da euskararen egunean. Eta horretarako, ekitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze zabalean.

Lehenik eta behin, euskararen egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaude. Izan ere, euskara maite dugunok badugu zer ospatu 2013ko abenduaren 3an. Euskara bizirik da, baditu hiztunak, eta etorkizuneko ateak zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorrenetan ere aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak eskatzen dizkigu.

Geroa euskaraz eraikitzeko ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta zein egoera daukagun ikustea. Eta gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaldearen arabera, oso egoera soziolinguistiko ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohartuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitatetik abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. Herriz herri euskararen arnasmuneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerria euskararen arnasmunea da, zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera, gune hauen erabateko normalizaziorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitzea dagokigu, legea bera ere beharren neurrira egokituz.

Udalerrri euskaldunetan biztanleen %70ak baino gehiagok daki euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako herritarrok. Udalerrri euskaldunek euskararen arnasmunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituzenez ezinbestean, udalerrriok funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerrri euskaldunetako administrazioak batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea, eta herritarrok bestetik, euskararen geroan jada jokatzeko dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentziazkoak dira euskarari dagokionean, eta ondorioz baita bertako herritarrok ere. Gune hauetan egiten diren hizkuntza politikak, eta norbanakook egunerokoan ditugun hizkuntza ohiturak, jarrera eta joerek eragin zuzena dute euskararengan.





**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Gure herritik abiatuta, herrita soilen inplikazioaz, elkarte eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnasmuneak zabaltzeko. Lizartzatik inguruko herrietara, Lizartzatik Euskal Herrira.

Guzti hori kontutan hartuta, Lizartzako Udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, ondoko adierazpena plazaratu nahi du:

- Lizartzan euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoiak garatzeko baldintzak daude. Udalerri euskaldunok, lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.
- Udalerri euskaldunek euskararen arnasmunerik zabalena osatzen dute. Eta beraz, Lizartza bezalako udalerriek euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua aitortzea ezinbestekoa da.
- Gure herria euskarari dagokionean erreferentziazko udalerria dela jakinda, Lizartzan garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontutan hartzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntza irizpideen aurka jarritako helegiteak esaterako, kalte nabarmena egiten diete euskararen normalizaziori.
- Lizartzako Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Euskararen eguneko adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**ZAZPIGARRENA.- MOZIOAK**

Ez dago moziarik.

**ZORTZIGARRENA.- BESTELAKOAK**

**ZABORRAK**

Alkateak, hitza harturik, zaborren gaiarekin, gaur egundaino eman diren pausuen berri ematen du, zer egin den, zer egiteko dagoen e.a.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Agertzen du, Plaza Soro, Elbarrena eta Eskolan jarritako konpostaguneak oso ondo egiten ari direla; aldiz Urondokoa kaxkar xamar dihoa.

Aurrera egiteko, berriro, etxeetara idatzia banatuko da, falta den jendea konposta egitera animatzeko.

### **HARROBIA**

Harrobia berreskuratzeko eman diren pausuen berri ematen du. Orain, Harrobi hori berreskuratu ahal izateko, Udalak aurreproiektu bat eskatu du.

### **ESKOLA**

Eskolaren gaiarekin, Eusko Jaurlaritzan, azaroaren 28an bilera dagoela adierazten du.

### **URAREN GAIA**

Gai honekin, hainbat bilera egin dira, bai Ur Kontsortzioarekin, baita beste herritar batzuekin ere.

Iritzi oso kontrajarriak daudenez, momentuz, 2015 urte arte, gaia alde batera uztea erabaki da.

### **HILERRIA**

Hilerriko nitxoetan, leku gutxi gelditzen ari zenez, 10 urte beteta zituzten gorpuzkinak atera dira.

### **AGENDA 21**

Diagnosia eta Ekintza Plana onartu dira.

### **OSASUN PUBLIKOA**

Bihar, prentsaurrekoa egingo da, egoera agertzeko.

### **ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE, DURANGOTIK IRUÑERA LOTUKO DUEN KATEA**



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Erabakitzeko eskubidearen alde, Durangotik Iruñera lotuen duen katea antolatu ahal izateko, Lantalde bat osatu nahi da. Lagundu nahi duenei izena emateko eskatzen da.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK  
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia